



Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozioekonomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko programa arautzen duten oinarri arautzaile orokorrak.

III ERANSKINA - PARTAIDETZA

Pertsonen enpresetako parte hartzea bultzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Gipuzkoan pertsonetan oinarritutako enpresa eredu parte-hartzaileagoak sustatzea, enpresetan pertsonen partaidetza aktibo, eraginkor eta erantzunkide baten bitartez kalitatezko enpleguaren eta jasagarritasun hirukoitzaren oinarritzko osagai gisa.

ENTITATE ONURADUNAK

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresa elkarteak eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.
- d) Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalak.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketan edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.6. oinarrian aipatzen den aitorten erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan beratu osatzen duen entitateren batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz laguntzeko moduko jarduketak izango dira enpresetan, konpromisotik eta erantzunkidetasunetik, pertsonen partaidetza eremu hauetan ezartzeko prozesuak bultzatzen dituzten proiektuak:

- kudeaketan partaidetza
- erabaki estrategikoetan partaidetza
- emaitzetan partaidetza
- kapitalean partaidetza.
- emakumeen partaidetza erabakiak hartzeko esparruetan



Proiektu horiek proposatu eta garatu daitezke helburu hauek dituen jarduketa batetik: sendotzea eta garatzea antolakuntza-eraldaketa, lehiakortasuna eta jasangarritasuna, jarraitutasuna eta belaunaldi aldaketa, transmisioa, gizarte ekonomia, eta baita enpresa-berregituratze eta berrabiatze bereraino ere.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 40a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, **69,29 euro/orduko gehienez**.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.

Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpres elkarte eta klusterren kasuna; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien **% 75 izango dira**.

EMATEKO PROZEURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasunekoak edo izan nazioartekoak, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekiko.



BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: 2021ko urriaren 14ean, goizeko 12:00etan amaituko da.
- Jarduerak hasteko epea: dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.
- Proiektuen exekuzio data: 2022ko ekainaren 28a.
- Proiektuak justifikatzeko data: 2022ko uztailaren 28a.

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko programaren 2021ko oinarri arautzaileak eta deialdia.

(2021ko irailaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 177 zk. 2021ko irailaren 15ean](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/kalitatezko-enplegua/partaidetza>

- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus